

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2022ko ABENDUAREN 20an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2022ko abenduaren 20an, eguerdiko 13.00 orduetan, Maite Arana Perez Alkatearen Lehendakartzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira bilkura honetan.

ZINEGOTZIAK: Vicente Garcia Momblona
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez
Mireia Ruiz Delgado
Aitor Beistegui Fiallegas


Bere ezin etorria adierazten dute: Jesus Maria Tejada Cantero eta Maialen Alonso Labandibar .

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 2. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
- 3. Larraulgo udaleko Toki-Erakundeak Gipuzkoako Foru Aldundiari egindako kudeaketa-gomendioa formalizatzeko, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondoriozko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuen kudeaketa materialerako, hitzarmenaren onespena./ Aprobación del convenio de formalización de la encomienda de gestión de la entidad local de Larraul a la Diputación Foral de Gipuzkoa en relación con los procesos de estabilización de empleo temporal derivados de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, para la gestión material de los mismos.**
- 4. XVIII. Aiztondo Klasikoa “Patxi Alkorta memoriala”-ri 2019 urteari dagokion diru-laguntzaren kitapena onestea, hala bada./Aprobación de la liquidación de la ayuda económica correspondiente a XVI. Aiztondo klasikoa” Patxi Alkorta memoriala”.**
- 5. Y.R.M. andreak euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntza eskaeraren azterketa/Estudio de la solicitud de subvención para realizar un curso de euskara realizada por Doña Y.R.M.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

6. Beste batzuk/Otros.

7. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA


Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 156/2022tik 159/2022ra Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

BIGARRENGO PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

REPSOL ELECTRICIDAD	159,80
REPSOL ELECTRICIDAD	25,39
REPSOL ELECTRICIDAD	100,36
REPSOL ELECTRICIDAD	133,95
REPSOL ELECTRICIDAD	289,57
SECURITAS DIRECT	49,61
SECURITAS DIRECT	50,22
ARTELATZ	1.185,80
MAQUELSA	44,64
OSCAR GALINDO	133,10
OSCAR GALINDO	786,50
NORTEGAS	77,54
EIHERA KOOP	1.292,00
GABIRONDO ITURGINTZA	1.729,09
TOLOMENDI	960,00
IZFE	1.989,5
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	995,81
ARINDU	726,00
EBA ERKIZIA	2.169,78
ADUNAKO UDALA	72,30
KIROLZER	53,05
TELEFONICA	102,25
TELEFONICA	214,65
TELEFONICA	27,59
ZU ETA BOK	1.503,63



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

MONTTE	339,07
BELARMENDI	290,40
IZFE	38,66
LEJARRETA	30,94
MAITE ARANA	42,38

Udalbatza honek, **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **15.613,58** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HIRUGARRENGO PUNTUA

LARRAULGO UDALEKO TOKI-ERAKUNDEAK GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIARI EGINDAKO KUDEAKETA-GOMENDIOA FORMALIZATZEKO HITZARMENAREN ONESPENA, ABENDUAREN 28KO 20/2021 LEGEAREN ONDORIOZKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO PROZESUEN KUDEAKETA MATERIALERAKO.

Ikusita, Larraulgo udalak ez duela abenduaren 28ko 20/2021 legearen ondoriozko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuen kudeaketa materialarekin aurre egiteko medio pertsonalik.

Egoera honen aurrean, Gipuzkoako Foru Aldundiak prestatu du, Toki-erakundeak kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmen eredu bat.


Ikusita Larraulgo udala interesatuta dagoela, Gipuzkoako Foru Aldundiari egindako kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmena onestea, abenduaren 28ko 20/2021 legearen ondoriozko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuen kudeaketa materialerako.

Gaia azterturik, udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku uztea abenduaren 28ko 20/2021 legearen ondoriozko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuen kudeaketa materialerako kudeaketa.

BIGARRENA: Sinatzea Larraulgo udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean kudeaketa gomendioa formalizatzeko hitzarmena, horretarako Larraulgo udaleko alkate-lehendakari andrea ahalmenduz.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA: Gipuzkoako foru aldundiari akordio honen berri ematea.

LAUGARRENA: Erabaki hau Gipuzkoako aldizkari ofizialean argitaratzea.

LAUGARREN PUNTUA

XVIII. AIZTONDO KLASIKOA "PATXI ALKORTA MEMORIALA"ri 2022 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENA ONESTEA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Klasikoa Batzordeak, XVIII. Klasikoa "Patxi Alkorta Memoriala" antolatu ondoren, emandako diru-laguntzen kitapena prestatu duela, Larraulgo Udalaren kasuan jarritako diru-kopurua 887,44 euro izan zen eta kostatu zena, Larraulgo kasuan 875,26 euro izan ziren.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Aiztondo Klasikoa Batzordeak XVIII. Klasikoak, "Patxi Alkorta Memoriala" antolatu ondoren, aurkezturiko kitapena onesten da.

BOSTGARREN PUNTUA

2020/2021 IKASTURTEKO LARRAULGO HERRITARREI EUSKARA IKASTAROAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZEN BABESEAN, Y.R.M. ANDREAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA


Ikusirik Y.R.M. andreak eginiko eskaera, non 2022/2023 ikasturtean Euskarako C1 maila prestatu nahi duela, autoikaskuntza bidez, Andoaingo AEK euskaltegian, klaseen kostu osoa 706,00 euro dira. Horregatik Larraulgo Udaletxeari diru-laguntza eskaera egiten dio.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Y.R.M. andreak eginiko eskaera onestu, hau da, Andoaingo AEK euskaltegian, autoikaskuntza bidez, burutuko duen Euskarako C1 maila lortzeko ikastarorako diru-laguntza ematea, ondorengoari baldintzaturik:

- Klaseak bakarrik diruz lagunduko dira.
- %85eko asistentzia justifikatu beharko du.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Baldintza hauek betetzen dituela frogatzeko, Larraulgo Udaletxean matrikularen ordainagiria eta egindako maila gainditu duela eta asistentzia ziurtagiria aurkeztu beharko du.

BIGARRENA: Diru-laguntzaren ordainketa ondoren zehazten den modura egitea:

-% 50: Matrikula ordaindu duenaren agiria aurkeztutakoan.

-%50: Ekainean, asistentzia ziurtagiria aurkeztutakoan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Y.R.M. andreari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

BESTE BATZUK

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.

6.1.5/2022 ZENBAKIA DUEN KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA

Larraulgo Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.


Eztabaidatu ondoren, Udalbatza honek, aho batez, honako hau

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:



LARRAULGO UDALA


(GIPUZKOA)

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.205.920.00.01 2022	FOTOKOPIADORAREN RENTING-A	520,00	100,00	620,00
1 0000.210.161.00.01 2022	AZPIEGITURA GASTUAK: UR SAREA	6.000,00	600,00	6.600,00
1 0000.625.920.00.01 2022	INBERTSIOAK: ONDARE ONDASUNAK	2.650,00	100,00	2.750,00
1 0000.421.162.30.01 2022	TOLOS.MANKOMUNITATEA.HON D.TRATAM.	1.000,00	1.000,00	2.000,00
1 0000.680.172.00.01 2022	LURSAIL BATEAN ZUHAITZ LANDAKETA	0,00	400,00	400,00
GUZTIRA		10.170,00	2.200,00	12.370,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.000.00.01 2022	GERAKINAK	2.200,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			2.200,00

BIGARRENA: Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

ZAZPIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZOAK**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 14.00 orduak direnean Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.